

Hala ere eskua zabalik

EUSKAL Herriaren ardatz nagusia eus-
kara dela sinesten duen nik be-
zalako norbaitek euskaldunon nola-halako ba-
tasuna ikusi nahi luke, eta horregatik aipatzen
nuen iaz DEIA n egin zidaten elkarrizketan amil-
degi ikaragarria zegoela gure artean, batzuek
hemen, besteak han, eta zubiak eta zubiak eriki
beharra zegoela; aipatzen nuen, baita ere, pazi-
fistatza nuela neure burua eta bakea zela herri-
honek merezi zuen saririk ederrena; bi muturrak
zerbait hurbildu nahian, aholku batzuek ematen
nizkion ETARI, denborak aldatu zirela esanez,
eta beste batzuek blokeo jendeare, desblokeatu eta
eskuzabalagoak izan zitezela eskatuz; hitz anbi-
guoak, nire ustez, bere burua zubigiletzat izan
nahi duen edonork bi aldeak eduki behar izango
baitu kontuan zubiak benetan eraiki nahi ba-
ditu, bere jarrera pertsonala nabarmendu gabe,
nahiz eta gero bere bizitzan, bozkatzeko orduan
adibidez, alde batera bestera baino gehiago jo,
ezinbestean. Baina elkarrizketa hartan aipatu
nuen, baita ere, bertan azaldu ez zen arren, euskal
mugimendu pazifista independentista bat izango
lizatekeela nire ametsa (Ghandi-ren antzera
edo), eta horregatik ez nengoela 'Gesto por la
Paz-ekoekin' ados, bide erdian geratzen zirela
iruditzen zitzaidalako: eta bide erdian geratzen
direla iruditzen zait. Herri honen oinarritzko es-
kubide politikoak inoiz aipatzen ez dituztelako,
eta bortsakeria kondentatzen dutenean ETARI
soilik eskatzen diolako armak uztea, inoiz ez
erjeto espainolari edo goardiazibilari; baina
esan beharra dut, baita ere, ez naizela pazifista
tonto eta inozo bat eta kontzientea naizela mundu
honetan indar armatuak direla nagusi, oraingo
behintzat; beraz, pazifista naiz, baina badakit
pazifismo hori testimoniala dela eta une honetan
bere eragina horizontean diridir egiten duen arti-
zarraren eraginarekin pareka daitekeela, testi-
monio etiko-estetiko huts batera mugatzen de-
larik soilik; hala ere, alde batetik ez-praktikoa

banaiz, horrek ez du esan nahi soluzio praktikoan
alde ez nagoenik, eta horregatik beti egongo naiz,
konfliktuan edo auzitan dauden indar armatuen
arteko negoziazio guztien alde, bai El Salvado-
rren, bai Pertsiar Golkokoan eta bai hemen Euskal
Herrian. Eta hau dena esaten dut gure herriko
egoerak soluziorik ez duela iruditzen zaidalako,
ez irtenbide politiko negoziatu bat ematen ez
zaion bitartean behintzat, zeinetan indar arma-
tuez gain indar politikoez ere parte hartu beharko
bait lukete, jakina. Ez, ez zait iruditzen aski
ETAKoak pelikulo gaizto bakarrak bezala ate-
ratzea —eta nire ingurukoek badakite ez naizela
inoiz ETAzalea izan, nahiz eta ulertu beti ulertu
izan ditudan, inola ere ez justifikatu—, gure
mendebaldeko demokrazia 'santuak', Espai-
niako tartean, Irak-en gerra egin eta milaka ira-
kiar hiltzeko prest daudenean... edota aurreko
urteetan Irak eta Iran-go ejerzitoak armaz hornitu
zituztenean, gerra ikaragarri hartan ehundami-
laka arabiar hil zitezen; ETAKoek beren idealak
azalduko dituzte justifikazio gisa; 'demokratak',
berriaz, pelikulo onak balira bezala agertzen
saiauko dira beti, askatasuna lau haizeetara al-
darrikatuz, berdin pertsiar Golkoko krisian, bai-
na inozoa ez denak badaki hori gezur hutsa dela,
eta askatasunaren gainetik eta azpitik, petroliotik
letorkeen dirua dagoela nagusiki.

Baina lehen zubiak aipatzen nituen, euskaldu-
non arteko zubiak, eta penaz ikusten dut, nega-
rrez ia, geure egoera gordin bezain mingarria;
izan ere, hortxe dago autobidearen arazoa; gau-
zak hain muturrera eramane ditugu, ezen zubiak
eraikitzen ez dagoela iruditzen bait zait; eta
zubiak eraikitzen ez dagoenean, nork bere alde
aurretiko jarrerari eutsiko dio, eta nik ere horixe
egingo dut lerro hauetan, hasieratik egon nintzen
proiektu honen kontra, eta joan ere joan nintzen
manifestazio batera, handik aurrera gehiagotara
joan ez banintzen ere, halakoetan gertatu izan ohi
diren manipulazioengatik (noiz ikasiko dugu

euskaldunok, alde guztikook, mugimendu zabal
bat behar dugula, ahalik eta zabalena, geure indar
guztiak ere hain urriak direnean, etsai politikoez
dituztenekin konparatuta!); esaten nuen, bada,
hasieran kontra egon nintzela, eta orain diferen-
tzia batekin, prozesu istilutsuetan erreferenduma
erabiltzearen aldeko jarrera demokratikoagoa
iruditzen bait zait niri, ikuspuntu horretatik 'Lu-
rraldeakoekin' ados nagoelarik. Eta okerre-
na da horren ondorioz inoiz baino gehiago blokeatu
direla blokeoak, eta HB erabat baztertua erabaki
dutela: horra hor, bada, euskaldunon arteko
haustura ia definitiboa. Pozik euskaldunok zatitu
eta elkarren aurka jartzea lortu ondoren! Eta ho-
nako hau pentsatzen dut: zer eskaintzen digu ba
demokrazia espainolak, euskaldunok hain prezio
altua ordaindu behar izateko? Hainbeste merezi
al du demokrazia horrek, euskararekiko eskubi-
deak eta gaztelerarekiko obligazioak behin eta
berriro azpimarratzen dizkigunean, gure eskubi-
deak behar bezala aintzakotzat hartzen ez ditue-
nean?

Bukatzeko, ez nuke inork lerro hauetan gorro-
torik ikusterik nahi, ez bait dut gizakien arteko
gorrotoan gehiegi sinesten... egunero begiratzen
bait diot nik heriotzari aurrez aurre, gorrotoan
sinesteko; bakarrik esan nahi nuen min handia
dudala, gure arteko zatiketa hauengatik, eta aha-
leginak egin beharko genituzkeela historia triste
hauei lehenbailehen amaiera emateko... eta orain
bizi dugun infernua ere, ez genukeela eskua
elkarrengana luzatzeko ahalmenetik galdu behar:
nik behintzat, nagoen lekutik, berdin jarraituko
dut, eskua luze eta zabal, halako batean eskurik
gabe gera naitekeela baldin badakit ere.

JOAN MARI IRIGOIEN

IDAZLEA

TXEMA AUZMENDI

KAZETARIA

Lurraldea alternatiba eta elkarrizketa

AZKEN egunotan behin eta berriz gauza
berbera errepikatzen duten zen-
bait eztabaidazalek lanari ekin diote, beraien
lanaren zati bat «Nafarroa eta Gipuzkoaren ar-
teko komunikabideei irtenbidea emateko Lu-
rraldea Alternatibak» esistitzen ez duela egiaz-
tatzeko erabiliz, nahiak errealtatearekin nahas-
tuz. Insistitzen dute baita Nafarroa-Gipuzkoa
komunikabideen arazo guztia konexio estrategi-
ko ilunak dituen trikimailu batetara murrizten
dela.

Herriarren kritika zanpatzearen askatasuna-
ren defendatzaile gogotsu hauek ez dira zailtzen
arazo ekologiko eta sozial garrantzitsu honi ir-
tenbide errealista eta bidezko bat bilatzen, eta
itsukerian murgilduta errotak erraldoiekin
nahasten dituzte.

Lurraldea Koordinadorak bi gauza bakar ba-
karrik nahi ditu. Lehenengo, Nafarroa eta Gi-
puzkoaren arteko komunikabideen hobekuntza

bat gauzatu dadila. Hobekuntza bat, gure ingu-
ruiroa Irurtzun-Andoain autobide proiektu
hondatzaileak —Euskal Herriko, Espainiako eta
Europako talde ekologista guztiek zeharo ezego-
kitzat jotzen dutena— baino gehiago errespetat-
uko duena.

Bigarren, Koordinadorak nahi eta aldarrika-
tzen du, egin beharreko trazaketaren erabakiak
teknikoki kontrajar dezala hau gaur egun dauden
beste alternatiba batzuekin (dagoeneko ez da
Lurraldea Koordinadora bakarrik: enpresek tra-
zaketa alternatiboak proposatzen dituzte, tolosar
taldeak, etab.). Eta herriarren eskuhartze for-
mula bat (Erreferenduma, Bitartekaritza Komi-
sioa, Adiskidetzeko Konferentzia, etab...), de-
mokratikoagoa, zailtzen gabe, erortzen dena
erortzen dela proiektuak aurrera eramateko era-
bilitako omnipotentzia baino; omnipotentzia
hau, ordezkaritza parlamentarioaren gehiegizko
interpretazio batetik dator.

Auzi sozial eta ekologiko honen muina, gaur
egun Nafarroan dauden ugariena bezalaxe, zein-
tutan ETAK ez duen parte hartu, hauxe da: in-
guruko beste ezin herri baino herriak parte har-
tzera gutxiago ohitua dagoen administrazioak,
egitasmo eztabaidatuak indarra dela medio
ezartzen dituela.

Burrutun eta manipulazio arrakatsuen gai-
netik, autobidearen auzian nahasturiko agente
sozialen arteko elkar ulermenak, Lurraldea herri
mugimendu ekologista barne, eman diezaioke
amaia era egoki eta iraunkor batean egoera honi.
Proba dezagun elkarrizketaren bidea. Hobe be-
randu sekula baino.

BEGONA HUARTE AZPIROTZ

LURRALDEA KOORDINADORA KIDEA

*Erredazioan itzulia

BERRIAK ZIRI



GEORGE BUSH
EL DIARIO VASCO
1991+17

«Munduak

ezin zuen gehiago itxaron»



SAADI MAHDI SALEH
EL SOL
1991+17

«Eskura

ditzakegun bide guztiak erabiliko
ditugu: arma kimikoetatik hasi eta
makila eta harriak arte»



ANTONIO ARAGON
DIARIO DE NAVARRA
1991+17

«Gipuzkoako

hitzarmenak autobideko lanen
etorkizuna eta jarraipena argitzen
dute»



JON LARRINAGA
EL MUNDO
1991+17

«Eeren

bereziena nazionalista 'lightak'
garela da»

ZAKILIXUT

© Olariagak

Osasunak sendo jarraitzen du



Jan Urban Osasunako
jokalaria poloniarra
pil-pilean dugu azken
partiduen ondoren. Real
Madridenten kontra jokatu
zuenetik denon ikusmiran
izan da aurrelaria, eta...

ETA
NOLA
EZ
BADA?

URBAN
PIL-PILEAN
JAN
ONDOREN...

